

Nafarroako Esaera Zaharrak. Oderitz, Uitz.

<http://mediateka.fonoteka.com>

Nafarroako Gobernua - Gobierno de Navarra
Euskarabidea - Instituto Navarro del Vascuence
Nafarroako Euskararen Mediaketa - Mediateca del Vascuence de Navarra
<http://mediateka.fonoteka.com>

Iturria:

Damaso Intza, Nafarroa-ko euskal esaera zaharrak, 1974.

Bertsio informatiko honen egilea:

Elea

Nafarroako Euskararen Mediaketak egindako lanak publikoak dira eta, Jabego Intelektualaren Legearen arabera jatorrizko idazlanak bestelako eskubiderik ez baleuka, nahi bezala erreproduzi daitezke.

Nafarroako Esaera Zaharrak. Oderitz, Uitz.

- 301 *Ai-aien nago.*
Ekin-nai bizi bizian nago.
- 303 *Aitte biltzalleak seme ondatzallea.*
Aitak etxea goratu ta semeak ondatu.
- 304 *Aizea burun eta ibilli mundun.*
Kaskariñaz esana.
- 305 *Aizik salduik joan da (aizeak saldurik).*
Izu-ikarak arturik.
- 306 *Aizik saldu zittioin (aizeak saldu zizkioten).*
Norbaiti aizea saldu, ikareria sartu edo sarrarazi.
- 307 *Akerraren buztarpean aterpe gutxi.*
Norbaitengandik deus ezin iritxi.
- 308 *Amabik: maien bi begik.*
Bazkaltzeko ordua dela.
- 309 *Amika (amaika) barako atorrari ez sartu; iru t'erdikoa naikoa duzu*
.
Lan geiegi ez artu, ler egin ez dezazun.
- 310 *Amika bear ez lukenak, gauzek izaten ttu (ditu).*
Eta bear lukenak ez izaten.
- 311 *Año e(g)iñe iritxi da.*
Ler gaizto egiñik etorri da.
- 313 *Apaldu nai ez dunarentzat maie prest.*
Emen ezer ez dago.
- 314 *Apez batek bedeinkatu al lan badugu.*
- 315 *Apostue ez duk errenta; olloa an ze(g)ok erre ta.*
Apostuak arriskua berekin.
- 316 *Arbi-lorea baño alperragoa aiz i!*
Lanik ezin eragin zaionari esana.

- 317 *Ardie auntzei ille eske.*
Duen a ez duenari, aberatsa beartsuari eskeka.
- 318 *Ari oneko egurre duk ori, beretik ateratzeko!*
Oso setatsua, ez da erraz ori bere setatik ateratzea.
- 319 *Arille txarra du; arille ipurdin du.*
Inon geldi ezin egona; tokiz edo lanaz beti aldatzen dabillena.
- 321 *Arrii (arria) eskutik bota baño len, begira nora bota.*
Botatzen den arriak ez du begirik non joko duen ikusteko; eta berdin, esaten den itzak ez jakin zer ondorio ekar dezaken.
- 323 *Asnas bakarrean etorri da.*
Estu ta larri etorri da.
- 324 *Astelen buru-aundi.*
Igandean geiegi edan, ta astelenean burua pisu.
- 325 *Asto askok, lasto asko.*
Lagun asko diren etxetan edo tokietan jateko asko bear.
- 326 *Asto zarra mukizu, malizi asko dakizu.*
Ori esan zion otsoak astoari arako "Astoa ta Otsoa" deritzan kontu ezagun artan.
- 327 *Ate aña maratil aterako ttik (dizkik) onek.*
Zer erantzun beti agoan daukanaz.
- 328 *Atetik atera ta leiotik sartu: nori eman zaion ez begiratu.*
Jainkoaren izenekoari emana, beste bidez itzultzen da ongilleagana.
- 329 *Ate-eizean Mari-Juan? lapur-bildur da etxean.*
- 331 *Aulek auleria berekin.*
Eta ergelak ere ergelkeria beti berekin.
- 332 *Au irauli diagu beintzat. Au joan duk biñipin.*
Joku bat irabaztean, edo lan bat menderatzean, esaten da.
- 333 *Aundiena egin bear zun eta.*
Il zanaz esana.
- 334 *Aur jaio ta aur biurtu.*
Zartzaroak edo gaitzak dakarten argaltasunaz.

- 335 *Aurreak aurreana dauke (aurreana = primacía).*
Aurrenekoa, beste guzien aurrekoa, eskubidetan.
- 336 *Aurrek ondo-gabeko estea du.*
Aurra ez da bein ere asetzen.
- 337 *Auts egiñik gelditu da.*
Ezertarako gauza ez dela gelditu da.
- 338 *Axuri(r)ik ederrena txintarri(r)ik gabe.*
Geienik merezi duena saririk gabe.
- 339 *Azpi-jana egin dioi (diote).*
Izkutuan salatu edo maltzurkeria egin diote.
- 340 *Azeri(a)k illia aldatzen, baño larrue ez.*
Berezko giña gaiztoak nekez uzten.
- 341 *A zer perretxikue zu!*
Axekuan edo maltzurkerian dabillenari esana.
- 342 *A zer baba-lastoa den ori!*
Eulia edo ustela dela adiarazteko.
- 343 *A zer eperra arrapatu ziñun bart!*
Zer mozkorra arrapatu zuñuen.
- 344 *Azi(e)nda aulek, arkakoso asko.*
- 345 *Bakoitzek bere lurre onirizten.*
Bere alderdia maite.
- 346 *Bat bestii(e)n lotsarik ez du ta.*
Gaiztakeri batek beste batera eramaten.
- 348 *Baztandarrak itzek eder, baño opille kolkoan.*
Itz ederren ondotik besterik egin.
- 349 *Begie luzeago tripek baño.*
Jateko geiegi artu, ta ezin janez uzten duenaz.
- 350 *Belar asko, negu asko: belar gutxi, negu gutxi: belarrik ez, bearrik ere ez.*
Noiz edo noiz ala zen noski.

- 351 *Bein ere ez dena, bein da.*
Egundano izan ez diren ta uste ez ziren gauza asko agertzen gaurkoan.
- 352 *Berez bear billera onekoa.*
Gautxoria nekez biltzen etxera ordu onean.
- 354 *Berritan morla (borla) eder.*
"Danbolin berriak soñu eder".
- 355 *Bide-konpontzalle oberena, Santiago.*
Santiagotan legortetik aundienak.
- 356 *Bestelako zaldune i, gero 're.*
Bere burua aundi egiten duenari esana.
- 357 *Besteen umea, beti txarra.*
- 358 *Bi jai-egunek doakala: Igande ta Eguberri, ta gero igande ta Urte-berri.*
- 359 *Bista ona iduki, eta elkar ezin ikusi.*
Gorrotan bizi direnak.
- 360 *Bizkorrago mingañez, indarrez baño.*
Olako asko izaki bazterretan.
- 361 *Bokadu aundie nai dunai, eztarrin gelditzen zaio.*
Lana ta jana neurrian.
- 362 *Botableo aundik botatzen ditu orrek.*
Gezur aundiak.
- 363 *Botako zaitut pikuetaraño.*
Emendik aldegin bearko duzu urrutira.
- 364 *Brasa aundiaren gañin sua erraz egiten da.*
Bai etxea ere diru asko denean.
- 365 *Bururik ez ta txapela nai.*
Ezin egin duen gauza egin nai duenari esana.
- 366 *Bururik ez dunak txapel bearrik ez.*
Bururik ez duenari zertarako eskeñi irabazbide on bat?
- 367 *Bururik ez dunak, anak ibilli bear.*
Burugabeak alper-pausu asko egin bear.

- 368 *Bustie beti otz.*
- 369 *Dagonarekin dagonarekikoa.*
Zintzotasunik ez duena, bein baten alde, gero bestearen alde dabillena.
- 370 *Danbolin berrik soñu eder.*
"Okin berriak ogi ona" etb.
- 371 *Dantzari oberena koskabilloik (edo kaskañetaik) gabe.*
Lanean edo jokuan geien egin duena saririk gabe gelditu.
- 373 *Denbora pastuk (pasatuak) denai irabazten.*
Guziak zartzen eta ondatzen, eta denbora aurrera joaten.
- 374 *Denean ase, ta ez denean gose.*
"Denean bon bon, ez denean egon".
- 375 *Deus ez den lekun, eskuk garbi: zerbait den tokin, begik argi.*
Ori esaten omen zien ijitoak bere umeai.
- 377 *Edozeñek ezagutzen zaitu!*
Zenbat jendez esan ote liteke ori gaurkoan.
- 379 *Eguberri bezperako gauerdin zer aize, urrengo temporeta(r) año aize ure.*
Bai ote? Beti ere, ez da fedezko gauza!
- 380 *Egueldi gorri-gorriak ikusi zitun.*
Estura ta ekaitz larrietan ibillia da.
- 382 *Egur ona arin (arian) ezagutzen da.*
Eta gizon ona bere izaeran.
- 383 *Elur aña egur.*
Ez noski beti eta leku guzietan.
- 384 *Elurre ari du, elurre: artzai kapelu makurre.*
- 385 *Erauntsi aña estalki.*
Ez beti ola izaki.
- 386 *Ereak estali ta besteenak agertu: ez aiz gizon prestu.*
Ire utsegiñak estali ta besteenak marmariaz agertu ta goraberatu.
- 387 *Erioa otz.*
Eriotzak amets guziak ondatzen, gorputza otz uzten; eta arima?

- 388 *Eriosuarrean joan da.*
Ero antzean, zernai egiteko zorian.
- 389 *Ero, baño bero. Ero baño abil bero.*
Eroztat artzen ba aute ere, ez axola orregatik, non ta i ongi abillen. Erderaz ere esaten da: "Ande yo caliente, ríase la gente".
- 390 *Erosi bezela saltzen dut.*
Kontatu didaten bezela kontatzen dut.
- 391 *Errotan egon, eta bidean laxter. Errotan lasa, bidean presa.*
Olatsu beste toki askotan. Oiherart-ek: "Eiheran dadinak egonegi, bidean laster begi" (129).
- 392 *Eskerrik asko! Iruñean bada etxe franko: bakoitzek berea artu ezkerro, ez da sobrako asko asko.*
- 394 *Etxin (etxean) egokierarik ez du izan.*
Etxean ezin moldatuz, atera egin da.
- 395 *Ez ago oraindik burutik!*
Guzia iretzat nai uke, besteok ere ez gaudek lo.
- 396 *Ez bat eta ez bi.*
Iñork uste ez zuela.
- 397 *Ez da aril onekoa.*
Toki edo lanbide batean egoterik ez du, beti aldatzen.
- 398 *Ez dauke erribera txarra!*
Irabazi aundia egin du, ondasun aundiak ditu.
- 399 *Ez di(r)e beren eltzeari gatzat botatzen asi.*
Ez dire beren sakeleko diruz bizi.
- 400 *Ez dugune bagiñu, txerrie il bagiñu, zartarie ekarri ta urdaie erreko giñun.*
"Bagiñu" goseak iltzen du, lanik egiten ez bada. Arloteen kontua!
- 401 *Ez du izenak egiten izana.*
Izana gabe, izenak gutxi balio.
- 402 *Ez dute beti labein (labearen) gañean.*
Ez dute berek dioten aña.
- 403 *Ez iduri arren, mandoa beti antzu.*
Jende zikoitzagandik ezin deus iritxi.

- 404 *Ez izan da bai uste, sasipeko masuste.*
- 405 *Ez Jainko t'ez lur.*
Jatekorik ez duenaz eta dena galdu duenaz.
- 406 *Ez lo bai lo.*
Erdi lotan dagonaz.
- 407 *Ezker edo eskuin, aukera zak zerozer; ausiosorik ez duk ik bein ere artzen.*
Ausiosoa = erabaki sendoa, ez-bai gabekoa, zirt edo zart.
- 408 *Ezkurreko xalkorra baño geiago ez aiz azitzen.*
Xalkorra = konkorra.
- 409 *Ezurrek mami biurtu arte joko aut!*
Asarre gorrian aurrari esana.
- 410 *Ez utsik, ez betea.*
Zakua ez utsik, ez betea; mandataria ola dator. Oihenart-ek: "Mandataria hotza, berant abia, barax joan, eta itzuli hutsa" (642).
- 411 *Gaitz zarra, aje txarra.*
- 412 *Galdu-gorde aundirik ez du jokatu.*
Jokatzeko deus gutxi duela esateko.
- 413 *Garizume, erdie negu zen, guzie ez bazen.*
- 414 *Gartzaron ta Erbitti, ardo zar guti.*
Basaburuko bi erri koxkor dira oiek.
- 416 *Gizonak gizona billatzen du.*
Jende zintzoak lagun zintzoa billatzen, bere gisako laguna.
- 417 *Gizon goseari ondoreko ondatzalleak.*
Gizon zikoitzaren umeak ondatzalleak.
- 418 *Goazen goazen oatzera, goizin jekiko gaittun ardatzera: gauden gauden oatzin, gauin ariko gaittun ardatzin.*
Alperra beti alper.
- 419 *Gezurre esan nun Getarin: ni etxera orduko gure atarin.*
Gezurak ankak motzak ditu, baña ariñak, laster ibiltzen direnak...
- 422 *Gosea baño begia luzego.*
Jan dezaken baño geiago artzen duenaz.

- 423 *Goza-mizkek galdu(r)ik daukie.*
Goxoki edo gauza goxo geiegiak, Kaltegarri.
- 424 *Gu allaatzen geran guzik, badiu (badute) ankan bat makurre.*
Besteri zerbait eskatzera joaten geran aldioro, badute ez emateko aitzakien bat.
- 425 *Gu beartu ezkerro, itsasoan ere ez litzake urik.*
Berdintsu leku askotan.
- 426 *Gure irabazi guzik, laratzak eramaten dizkigu.*
Jateko bear dugunak eramaten.
- 428 *Gustatzen zaionarentzat akerraren adarraren salda baño oberik ez.*
Gauzarik txarrena ere batzuetan atsegin.
- 430 *Gutxien uste deni(a)n azaltzen da erbie.*
Ustegabeko asko ekartzen bizitzak.
- 431 *Idie bere adarrekin jango lukie (lukete).*
Alako gosea baitute!
- 432 *Idik adar igarra.*
Deus ez dagoen lekutik ezin deus atera.
- 434 *Idi zar ori artu dueneko, ez bei (bide) zeuken aukera aundirik.*
Besterik ez denean, txarxeagoari eldu bear.
- 435 *Ik ere errapatuko duk leurriko (neurriko) zapata.*
Bere indarrez edo arroxo dabilenari esana.
- 436 *Ik ez? Nik ez. -Ez ik eta ez nik.*
Musean, jokabiderik bai edo ez duen, elkarri maiz esaten diotena.
- 436 *Ez ik eta ez nik.*
Pillotan berriz, uts edo falta izan den ala ez jakin ezin ditekenean.
- 437 *Ikusi al zifun Kristo jaiotzen? -Ezta iltzen eta zeruetara igotzen ere.*
Ori esaten dute, eman zaionaz ta egin zaion mesedeaz esker onik erakusten ez duenaz, eta erantzuten ere ez duenaz.
- 438 *Illek piztuko ttik (dizkit) orrek.*
Oso bizia ta zorrotza denaz esana; baita gauza guzietan jakintsu egiten denaz ere, farrez; baita konseju txarra ematen duenaz ere.

- 440 *Iruñe(a)n baño Irunberrin kontu geiago.*
Erri txikietan aundietan baño kontu geiago erabiltzen zenbait aldiz. Irunberri, erderaz Lumbier.
- 441 *Itxuraz ona, ta sagar ustela.*
Itxura ederreko gizona, baño gaizoa ta gaiztoa.
- 442 *Itsua argituko du orrek.*
Maltzurkeriaz besteri dirua kendu naiez dabillena.
- 443 *Izenez batea, egiñez bestea.*
Izena ona du, egiñak txarrak.
- 444 *Jai ta aste? Mal traste!*
Jai ta aste beti alperlanean ari denaz; baña baita jairik aundienetan ere nekazalgoan dabillenaz.
- 445 *Jaiek aste, ni beti izateko gazte.*
Jai ta aste lana berdin eragiten ziotenak esan zuen ori.
- 447 *Joanak onik ez, eta etorri(a)k oberik ez.*
Joan zenak ez, gero etorri zenak are gutxiago.
- 448 *Jo ta ke asten da, baño gero a(g)otz-galda.*
"Lasto-su, laster-su".
- 449 *Jostaketa luzi(a)k, azkenerako negarra.*
Eta aharra ta liskarra.
- 450 *Kaldo-maldo ta zukue nai.*
Zuku ontzat ematen edo saltzen zuku utsala.
- 452 *Karratza beti latza, eta asarrea bekain beltza.*
- 453 *Kontu oi(e)k eta auntzen gaberdiko eztule, bik bat.*
- 454 *Laixter geigo egiten du dabillen bareak, erbi geldiak baño.*
Geldi dagonak ez du aurreratzen, eta ez du irabazten aposturik.
- 455 *Largazkin ona pasa(r)azi dioi (diote).*
Estualdi eta ikareria gaitza ikusarazi.
- 456 *Larra maldaren alde.*
Gaiztoa gaiztoaren alde. "Sasia maldaren alde".

- 457 *Len zena, gero zena, Beute (Beruete) ko Berazena.*
Zan ark ez digu ezer ekartzen.
- 458 *Letro ari du.*
Euria jasa jasaren onditik ari du.
- 459 *Lo(r)ik ez du egin, lo-arma bakarrik.*
- 460 *Lore guzik galdu zizki(g)un, zain eta muin.*
Osotara.
- 462 *Maiatza erdie goseak eta beste erdie otzak.*
- 463 *Maiz frenoak artu bear zaizkio.*
Kontuz ibilli bear da orrekin.
- 464 *Martxoko ostosketak, berrogei eguneko ekaitzek.*
- 465 *Martxo zarpilletua: ik konponduko dittuk Imotz, Basaburu ta Larraun balleak.*
Elurrez estaltzen dituela.
- 466 *Matsondo onak mats ona: guraso onak aur onak.*
- 467 *Mari-Juan gorri gorri, biar gure atarian eguzki txuri txuri.*
- 468 *Mendin ez da arbolik, adar i(g)ar bat ez dunik.*
Ez eta gizon uts gabekorik. Oihenart-ek: "Zurzai orok, adar eihar" (535).
- 469 *Mingaño(a)n ez du erdoirik.*
Mingain zorrotza du.
- 470 *Mizke makurre da dirue.*
Diruak esku asko zikintzen ta lapur asko sortzen.
- 471 *Muki(r)ik ez, ta pañuloa.*
Bearrik ez duenak, bi.
- 472 *Mundun iru gauza galtzen dire alperrik: pobrearen arrazorea (arrazoia), mendiko egur igarra, ta alperraren indarra.*
- 473 *Muñek jan ttioi (dizkiote).*
Azpi-jana egin diote, txorarazi dute.

- 474 *Nai baduk ongi bizi, gaurko aparie biarko utzi.*
Gaurko geiegizkoa biarko utzi.
- 475 *Naiz kalma, balego modu ona!*
Ori esan omen zuen mutil zarrak.
- 477 *Nerea neretzat, zurea biontzat.*
Olako esku-zabalak ere izaten!
- 478 *Nere burue motel ez egiteagatik, soildue atera naiz.*
Jokuan-edo amorrik ez eman nai, eta diru guzia galdu egin dut.
- 479 *Negu(a)n txakurrei jate(r)a ematen ez dienak, udan ez du eperrik jango.*
- 480 *Negue nola, ardik illia ala.*
Ardiei ez zaiela illea moztu bear neguak dirauen arte.
- 481 *Nola dago? -Ez il, ta ez bizi.*
Azkenekotan zegoenaz.
- 482 *Nonbait or: 'Nonbait-or'rek egin zun etxea, 'nonbait-or'koa.*
Ala-olakoa, ez anbatekoa.
- 483 *Nolako egurre, alako ezpala.*
- 484 *Non dagon nere gogoa, an dago nere zangoa.*
Gizonak gogozko dituen gauzetara du joera.
- 485 *Norbaitek burro egin dio.*
Biraoa, maldizioa bota dio. Ori esaten da norbait burutik nasten asi denean.
Burro, burho esaten da Lapurdin eta alde aietan emen *birao* esaten dena. Nola etorri ote da Lapurdiko itz ori Larraun alderaño?
- 486 *Nor bere onetatik aterazi.*
Berez paketsua denari, jostaketan-edo bere pakea galarazi.
- 487 *Norpaittek kaskiñek eman ttio (dizkio).*
Norbaitek burua arrotu dio. Kaskiñak = gaizkiñak, deabruak?
- 488 *Oatzera, lo egin dugun probatzera.*
- 489 *Ogei astez kuku, san Pedrotan mutu.*
- 490 *Ogeita am(a)ika eskutik egin dio.*
Lana egin baño len, lan-saria jaso du.

- 491 *Ollarrak bere lurri(a)n indar.*
Bai jabeak ere bere lurrean.
- 493 *Onak e(r)aman dezala parte, gaiztoak bat ere ez.*
Langille onak bere saria merezi du, txarrak ordea ez du saririk merezi.
- 494 *(Gizon) Orrek ez du ausiosorik.*
Beti zalantzan, ez-baian dago, ez du bein ere zirt edo zart egiten. Ausiosoa =
decisión, resolución.
- 495 *Ongi azi, ta gaizki ezi.*
Bear duen guzia emanaz azi bai, baña nai duena egitera utziz gaizki ezi, eziera
txarra eman, guzien kalterako.
- 496 *Oñazturek artzen joan da.*
Oñaztura bezain arin joan ta ondatu da.
- 497 *Or dabil, akerrak adarrak dittun alde(r)a.*
Oso oker dabil.
- 498 *Or dabil inku-manku.*
Ala-ola, erdipurdi.
- 499 *Ordu(a)n atera zitun trapu zikiñek eguzkitara.*
Gauzak ziren bezela azaldu.
- 501 *Ori duk zopak eta purrust.*
Eman zaionaz gaiñera zerbait artzen duenaz.
- 503 *Orixe dun, ba, ez izan ta bai uste, sasipeko masuste.*
Buru arro ameslaria.
- 504 *Ortxopolotako otzik ez zeraman.*
Ziztu ona zeraman! arin arin joan zen!
- 506 *Ostatuko kontua(a)k dire oiek.*
Ostatuan asmatuak, edo ostatuatan gertatuak.
- 507 *Patxiko, joan ziñen betiko!*
Joan-ta-itzuli, joan-ta-itzuli dabillenari esana.
- 508 *Riau, riau! au irauli dia(g)u!*
Jokua irabazitakoan esana.
- 510 *San Martin, negue atzetik edo aurretik, geienezan bietatik.*
San Martin azaroaren 11'n.

- 511 *San Simon eta San Juda, uda joan ta negue eldu da, artzai gaxoa galdu da.*
San Simon eta Juda urriaren 28'an.
- 512 *Sala bat utse du.*
Buru txarrekoa da, ezaguera gabea.
- 513 *Sar adi sartzekotan; oa ortik gaiñerakoan.*
- 514 *Sasie malda(re)n alde.*
Gaiztoa gaiztoaren alde.
- 515 *Sasi(a)k ere badittu begi(a)k.*
Nonnai izan liteke ikusle bat, zelatari bat.
- 516 *Sasi guzien azpitik eta odei guzien gañetik etorri al zera?*
Ez zaitut iñondik etortzen ikusi; sorgiñak bezela etorri al zera?
- 517 *Sasi(a)k begi(a)k, eta ontzak belarri(a)k.*
Egunez eta gauez, gutxien uste dugun ikusle edo entzule bat izan diteke.
- 518 *Sasi(a)n eskriture egin ta plazara ateratzeko ona duk ori.*
Oso maltzurra duk.
- 519 *Senper gaiztoa ikusi bearra aiz.*
Gorriak ikusi bearra aiz.
- 520 *Senperrak ikusi ditu.*
Luzaroan gaitzak ikusi ditu.
- 521 *Soldadue, amaren seme sobradue.*
- 522 *Sue, auspean ere bero.*
Barneko naitasun eta griñak aurpegian, begietan nabari dira askotan.
- 523 *Su(d)urpeko txuloa ez duzu oso ona.*
Ao zakarra duenaz edo jale aundia denaz.
- 524 *Txapel batekin bi buru estali nai.*
Eziñezko gauza egin nai.
- 525 *Txapelik aundienak ez du buru utsa estaltzen.*
Naiz txapel aundia izan, bururik edo zentzurik ez duenak bere bururik-eza ezin gorde, aurki nabaritzen.
- 526 *Txanpon txarra etxera biur.*
Balio ez duen gauza ez du iñork iñon nai.

- 527 *Txantxarie baño geiago ez da gelditzen.*
Alako jendea beti jira-biraka, txantxaria bezela.
- 528 *Txepetxak aña bururik ez du orrek.*
Ain buru ariña da.
- 529 *Txerri aulek ezkurra amets.*
"Txerri goseak (urde goseak) ezkurra amets".
- 530 *Txerri(e)n alkate jarriko zaittui (zaituzte), ezkurrik baldin bada.*
Gaez, erdi mozkorturik oiu ta zalaparta dabiltzan mutillez esana.
- 531 *Txiki guzi(a)k, politt.*
- 532 *Txori(a)k ere, dun aña odol ixurtzen du.*
Dezakenak dezakentxo ematen du.
- 533 *U(r)e jaio zen denboran, izarrak zeru(a)n zeuden.*
Doai aundiak dituenaz, edo ongi begiratua denaz esana.
- 534 *U(g)az-ama, mala fama; u(g)az-aitte, makille maitte.*
Bata ta bestea, ugaz-umentzat gogorregi geienetan.
- 535 *Ultzii egiten deni(a)n, ateratzen da Pittiri.*
Ultzia egitean = garia jotzean. Pittiri = gosea; orduan goseak aldegiten.
- 537 *Ume ona etxerako bidean.*
Oberena etxerako gordetzen.
- 538 *Udondoko matsa, iñoiz ontzen ez da.*
Alargun batek, bide makurrez izan duen aurraz.
- 539 *Urek ekarri zian, eta urek eraman zian.*
Buenos-Aires-ko esneketariari gertatua. Esneari egunero ura nasiz, irabazia egin eta eguzkitarako zapel aundi bat erosi eta ori buruan zuela kotxean eseri ta panparron igarotzen zen zubi aunditik. Alako batean aize-boladak zapela uretara eraman zion, eta orduan esan omen zuen ori: Urek ekarri, urek eraman.
- 540 *Urteak ekarri(a)k, urteak eraman ttik (dizkik).*
Urte guziko diru-kontuak ola ematen omen zituen Alli-ko alkate batek: zenbat sartu, anbat atera, eta kitto.
- 541 *Ur-zirriztek erakusten du itturrie; itz onak gizon argie.*
- 543 *Ustela, uxe ustela!*
Aurak elkarri maiz esaten diotena.

- 544 *Utzi, utzi; oraindik ez duk eskallera bera jetxi.*
Estu badabil ere, oraindik irabazi zezakek.
- 545 *Zakur-maingie eta andre-negarra, biek peto.*
Biak berdin.
- 546 *Zakurreen biguliñe!*
Esan edo egin den erokeri baten ondorean.
- 547 *Zee? -Me, ardi zarrak anka me, urren aldi(a)n ago erne.*
Esan den kontuen bat ez entzun eta zer, zer galdezka ari denari erantzuna.
- 548 *Zeledon egitera jarriko litzake ori.*
Guziz lotsagabea da. Zeledon (edo txeledon); zenbait erritan egiten zen komedia farragarri itsusi bat da. Non ta nola egiten zen, ikus: José Miguel de Barandiarán, Diccionario ilustrado de mitología vasca, s.v. Txeledon, Obras completas, tomo I.
- 549 *Zer adiurreko gizonak zerate zuek?*
Zer gizon mota zerate.
- 550 *Zin gorrie e(r)amanarazi dit.*
Ler gaizto egiñarazi dit.
- 551 *Zite gaiztoa zio.*
Ezin ikusi aundia izan norbaiti.
- 552 *Zozokeritan dabillena, zozo edo alper utsa.*
- 552 *Erregetan ollarraren arra,
San Antonetan mandazaien legoa,
otsaillaren erdira, loa begira.
Zer da?
Egunaren luzetasuna.
Ta martxoaren erdin, gau t'eguna berdin.*
- Asmakizunak.
- 552 *Biribil biribil, ure(a)n iragi dabil,
buru aundi, isatsa luzea aren billeka dabil.
Zer ote da?
Txalburua, buru aundikoa.*
- Asmakizunak.

552 *Axuritan txuri, bildotxetan gorri,
arkaztetan berde, arditan beltz.
Zer ote da?
Masusta.*

Asmakizunak.

552 *Ama latza ta umea beltza, asmatu erraza.
Zer ote da?
Masusta, martuxa; baita gaztaña ere.*

Asmakizunak.